su-bizizko iturri-jauzi antzean,
bil eguratsaren uiñetan zear.

Egunarena lez zun argi-adar.
Bizi dizdiratu yatzun ortzean,
Illargia argizko urdin-unean
edurrezko lore lez zabaltzear.

Gero galdu aren diz-diz gorrizka:
izarki arin lez joan igeskor:
azkenez, su-kizkur legez, goraka.

Tanpez, aren txistu zoliak amor:
ta gogorki joaz asi, zatika,
urrezko malkotan, edatsu-jauskor.

Antonio Machado

(1875-1939)

LIX

Anoche cuando dormía
soñé, ¡bendita ilusión!
que una fontana fluía
dentro de mi corazón.

Di, ¿por qué acequia escondida,
agua, vienes hasta mí,
manantial de nueva vida
de donde nunca bebí?

Anoche cuando dormía
soñé, ¡bendita ilusión!
que una colmena tenía
dentro de mi corazón;
y las doradas abejas
iban fabricando en él,
con las amarguras viejas,
blanca cera y dulce miel.

Anoche cuando dormía
soñé, ¡bendita ilusión!
que un ardiente sol lucía
dentro de mi corazón.

BART AMETSETAN

Bart, ametsetan, lo nengoala
iturri baten jario leuna
senti nun ene biotz-barruan.
Zorioneko ameskizuna!

Iñoiz txastatu bako iturbegi,
bizi-indarraren suspertzaille, esan:
nungo erreten ezkutuak jauz-
arazi dizu nere barnean?

Bart, ametsetan, lo nengoala
erlauntza baten burrunba leuna
senti nun ene biotz-barruan.
Zorioneko ameskizuna?

Urregorrizko erleak ezti
gozoa eta ezko zuria
aritzen ziran bertan mamitzen,
oñaze zarrak arturik gaia.

Bart, ametsetan, lo nengoala
eguzki-gingan argi biguna
senti nun ene biotz-barruan.
Zorioneko ameskizuna!

Era ardiente porque daba
calores de rojo hogar,
y era sol porque alumbraba
y porque hacía llorar.

Anoche cuando dormía
soñé, ¡bendita ilusión!
que era Dios lo que tenía
dentro de mi corazón.

Gartsua zan, bai, sutondo gori
antzean, bero ematen bai zun.
Eguzkia be ba-zan, argitu
eta negarra eraiten zizun.

Bart, ametsetan, lo nengoala
Jainkoa bera zala nuena
senti nun ene biotz-barruan.
Zorioneko ameskizuna!

LXVIII

Llamó a mi corazón, un claro día,
con un perfume de jazmín, el viento.

—A cambio de este aroma,
todo el aroma de tus rosas quiero.

—No tengo rosas; flores
en mi jardín no hay ya; todas han muerto.

Me llevaré los llantos de las fuentes,
las hojas amarillas y los mustios pétalos.
Y el viento huyó... Mi corazón sangraba
Alma, ¿qué has hecho de tu pobre huerto?

EGUN ARGITSU BATEN
(Galerias, LXVIII)

Egun argitsu baten aizeak,
jazmin-usaiñez, biotz-atetan
dei: —Usain onen truk zure lorak
daben usaiña nai dot eroan.

—Larrosarik ez nere baratzak.
Onezkero il dira guztiak.
Orduan berak: —Orri zimelak
daroakedaz ta ur-negarrak...

Aizeak iges... Nere biotza
odol-jario... Zori gaiztoa!
—Nun ete dago zure baratza?
Zure baratza, ene gogoa!

LXXIX

Desnuda está la tierra,
y el alma aúlla al horizonte pálido
como loba famélica. ¿Qué buscas,
poeta, en el ocaso?

Amargo caminar, porque el camino
pesa en el corazón. ¡El viento helado,
y la noche que llega, y la amargura
de la distancia!... En el camino blanco

algunos yertos árboles negrean;
en los montes lejanos
hay oro y sangre... El sol murió... ¿Qué buscas
poeta, en el ocaso?

LURRA BILLOSIK DA AGERI...
(Galerias LXXIX)

Lurra billosik da ageri.
Ene gogoa osertz-lits
zurbillari buruz zaunka
otso gosetia bai'litz.

Arrats-apalean zeren
billa zabiltz, olerkari?
Au bidearen mingotsa,
biotzaren nekegarri!

Aize otz, datorren gaba,
urrutitasun mingotsa...
Bide zurian arbola
batzuen irudi baltza.

Urrutiko mendietan
urre-odola. Il barri
da eguzkia. Arrats-beran
zer billatzen, olerkari?

LXXX

(CAMPO)

La tarde está muriendo
como un hogar humilde que se apaga.

Allá, sobre los montes,
quedan algunas brasas.

Y ese árbol roto en el camino blanco
hace llorar de lástima.

¡Dos ramas en el tronco herido, y una
hoja marchita y negra en cada rama!

¿Lloras? ...Entre los álamos de oro,
lejos, la sombra del amor te aguarda.

ZELAIA

(Galerias, LXXX)

Arratsaldea il-urren dago
sutondoko gar ezereza antzo.

Mendi-gaiñetan txingar eskasak.
Bide zuriko zugatz jausiak,

errukiarren, negar-malkoak
ixuriazo daustaz. Enborrak,

zauriz, adar bi. Eta adarretan
orri baltz bana, erio-ikaran.

Negar? Urrezko lertxun-artean
Maite-Itzala zai dozu, urrunean.

Eduardo Marquina

(1879-1946)

LA VIRGEN MARIA

La Virgen María
penaba y sufría...
Jesús no quería
dejarse acostar...
¿No quieres?
No quiero.
Cantaba un jilguero,
sabía a romero
y a luna el cantar.
La Vigen María
probó si podría
del son que venía
la gracia copiar.
María cantaba,
Jesús la escuchaba,
José que aserraba
dejó de aserrar...
La Virgen María
cantaba y reía,
Jesús se dormía
de oirla cantar.

AMA BIRJIÑA

Ama Birjiña
oiñaze-miñez.
Josu'k lotara
joan gura ez.

Ez nai? Ez. Txindor
bat dari, illargi
ta erromeru
baizen gozoki.

Andra Mariak
ekin, etorren
soñu-ots ari
ederra artzen.

Mariak abes.
Josu zur-adi.
Joseba'k serra-
lanari itxi.

Ama Birjiña
irriz ta kantuz.
Josu entzunaz
joian lokartuz.

Tan bien se ha dormido
que el día ha venido,
inútil ha sido
gritarle y llamar...
Y... entrando ya el día
como El aún dormía,
para despertarle
¡la Virgen María
tuvo que llorar!

Ain lo dago ta,
goiza urratzear,
alperrik dira
dei ta deadar.

Eguna il, Bera
lo. Ta Andra Marik,
esnarazteko,
negar gogotik!

Juan Ramón Jiménez

(1881-1958)

PASTORALES
10

Los caminos de la tarde
se hacen uno, con la noche.
Por él he de ir a ti,
amor que tanto te escondes.

Por él he de ir a ti,
como la luz de los montes,
como la brisa del mar,
como el olor de las flores.

ARTZAIN-ABESTIAK
Ibarra 10

Arratsaldeko bideak
bat egiten dira, gabaz.
Maitasun ain ezkutuoi,
andik zeuganatuko naz.

Andik zeuganatuko naz,
mendien argi-moduan,
itsas-aizea bezela,
lore-usaiñaren antzean.

PASTORALES
8

(...Anda el agua de alborada...)
Romance popular

Doraba la luna el río
—¡fresco de la madrugada!—
Por el mar venían olas
teñidas de luz de alba.

El campo débil y triste
se iba alumbrando. Quedaba
el canto roto de un grillo,
la queja oscura de un agua.

Huía el viento a su gruta,
el horror a su cabaña;
en el verde de los pinos,
se iban abriendo las alas.

Las estrellas se morían,
se rosaba la montaña;
allá en el pozo del huerto,
la golondrina cantaba.

ARTZAIN-ABESTIAK
Ibarra-8

(...Ibilli dabil ura argi-urratzean...)
Erri-kanta

Iretargiak latsa urreztatzen
—Egunsentiko ozkirri!—
Itsasotik ba-etozan uiñak
goizaldeko argiz gorri.

Zelaia makal, itun, argitzen
joian. Kilker baten jardun
autsia lotzen zan. Ba-zan ere
ur baten intziri illun.

Aizeak bere zulora iges,
bere bordara izuak;
piñu-berdean asiak ziran
zabal egiten egoak.

Izarrak ilten ziran, mendiak
larrosa-margoa artuten;
An, baratzeko oxin-ondoan,
enara bat abestuten.

4
MADRUGADA

(Cita)

El viento rinde las ramas
con los pájaros dormidos.
—Abre tres veces el faro
su ojo verde—. Calla el grillo.

¡Qué lejos, el huracán,
pone, uno de otro, los sitios!
¡Qué difícil es lo fácil!
¡Qué cerrados los caminos!

Parece que se ha trocado
todo. Pero al claror íntimo,
se ven arenas y flores
donde ayer tarde las vimos.

4
GOIZALDE

(Urrutiko Baratzak-Baratz gizatsuak)

Txoriak lo, adarrak jo
aizeak. Begi muskerra
irutan diriki Itsas-
argiak. Ixil kilkerra.

Zirimolak bai urruntzen
bata bestetik lekuak!
Erreza zein gatx eiten dan!
Zein goibel ibilbideak!

Dana aldatua dirudi.
Barne-argitan, ostera,
atzoko lekuan ondar-
lorak begiztatzen dira.

13

He venido por la senda,
con un ramito de rosas
del campo.
Tras la montaña,
nacía la luna roja;
la suave brisa del río
daba frescura a la sombra;
un sapo triste cantaba
en su flauta melodiosa;
sobre la colina había
una estrella melancólica...
He venido por la senda,
con un ramito de rosas.

ABESTI ITUNAK
(Gomutapen Sentikorrak)

13

Zidorretik etorri naz,
basa-larrosen mordoska
eskutan. Mendi-ostean
sortzen illargi gorrizka;

Erreka-aize bigunak
eze egian itzala;
sapo itun batek jotzen zun
ederki bere txirula.

Izar bat uzkurtasunez
egoan muño-gaiñean.
Zidorretik etorri naz,
lili-txorta eskuetan.

15

(Recuerdos sentimentales)

Aquel ramito de flores
que me mandaste del campo
—¡ay, azahar, ay, jazmín!—,
aún lo llevo aquí clavado.

¡No sé qué tiene, que no
se marchita! Su olor blanco,
como una pregunta virgen,
sigue esperando, esperando...

ABESTI ITUNAK

(Gomutapen sentikorrak)

15

Zelaitik bialdu zeustan
lore-mordoska txikia
—oi, limoi-lore, oi, jazmin!—,
ementxe daukat josia.

Ez dakit zer dun. Igartu
ez! Bere usain zurizka,
itaun neskuts baten antzo,
oraindik ere itxonka...

OLVIDANZAS
(Las hojas verdes)

1
Crepúsculo

El poniente me invade con sus flores
de oro, mientras, largo y lento, canta
el ruiseñor de todos mis amores,
ahogándose casi en mi garganta.

Al ver este oro entre el pinar sombrío,
me he acordado de mí tan dulcemente,
que era más dulce el pensamiento mío
que toda la dulzura del poniente.

¡Oh dulzura de oro! ¡Campo verde,
corazón con esquilas, humo en calma!
No hay en la vida nada que recuerde
estos dulces ocasos de mi alma.

AZTUTZEAK
(Orri orlegiak)

1
Illunabarra

Sartaldeak urre-loreekin napurtzen
nau; luze ta astitsu nire maitetasun
danen urtxindorra, tartean, abesten,
eztarrian ito-zorian egotzun.

Urre au piñudi baltzean ikus ta
nire burua ala izan dot gogoan,
eztitsuago zan nire gogoeta
Sartaldeko ezti guztian aldean.

Oi urrezko ezti! Zelai orlegia,
ezkildun biotza, patxadazko eke!
Nire arimako iltzeon eztia
biztaldian ezek ezin oroi leike.

MI CUNA

¡Qué pequeñita es la cuna,
qué chiquita la canción;
mas cabe la vida en ésta
y en aquélla el corazón!

¡Nadie ríe aquí de ver
a este niño grandullón
mecerse, quieto, en su vieja
cuna, a la antigua canción!

—¡Qué pequeñita es mi vida,
qué tierno mi corazón!
¡Este me cabe en la cuna,
y la vida en la canción!—

¡Cómo se casan los ritmos
de cuna y de corazón!
¡Los dos vuelan por la gloria,
en una sola pasión!

¡Qué pequeñita es la cuna,
qué chiquita la canción;
mas cabe la vida en ésta
y en aquélla el corazón!

NIRE SEASKA

Zein dan txikia seaska,
zein dan laburra abestia;
alan be, baten biotza,
bestean sartzen bizia!

Emen iñork barrerik ez
sein kotor au ikustean
kuma zarrean kulunka
kanta zarraren otsean!

—Nire bizia bai txiki
ta bigun nire biotza!
Berau kuman kabitzen yat,
eta abestian bizitza!—

Biotz-seaskan igiak
zelan diran alkartuten!
Biak aintzaren atzetik
zalentasun bakar baten!

Zein dan txikia seaska,
zein dan laburra abestia;
alan be, baten biotza,
bestean sartzen bizia!

OLVIDANZAS
(Rosas de setiembre)

4
Cuarto

¡Qué quietas están las cosas,
y qué bien se está con ellas!
Por todas partes, sus manos
con nuestras manos se encuentran.

¡Cuántas discretas caricias,
qué respeto por la idea;
cómo miran, estasiadas,
el ensueño que uno sueña!

¡Cómo les gusta lo que a uno
le gusta; cómo se esperan,
y, a nuestra vuelta, qué dulces
nos sonríen, entreabiertas!

¡Cosas —amigas, hermanas;
mujeres—, verdad contenta,
que nos devolvéis celosas,
las más fugaces estrellas!

AZTUTZEAK
(Iraillako larrosak)

4
Gela

Zein geldi dagozan gauzak,
zein ondo nagon eurekin!
Euren eskuak, goi-betik,
aurkitzen gure eskuekin.

Zenbat ixillezko ikutu,
bulkoai buruz zein lotsa;
zelan so egiten daben
bat bederaren ametsa!

Zein maite daben norberan
griña; zelan ditxaroen,
ta, gu itzultzean, zein gozo,
zabalik, barre eiten daben.

Gauzak —lagunak, arrebak;
andreak—, poz-gertaera,
izar ariñenak, espaz,
damoskuzuez atzera!

REY DE VANIDADES

Coronaba la tarde mi tristeza
con sus multiplicados resplandores,
y eran oro magnífico estas flores
mustias, adorno vil de mi cabeza.

Desde la cumbre de mi realeza,
sonreí, campeador, a mis dolores;
cual miel, paladeé mis sinsabores;
pensé que el pesar era la belleza.

Mujer al fin, la tarde, vanamente
se desnudaba de su luz, las cosas
quedábanse sin ansia y sin sentido...

Volví a ser yo. Las flores de mi frente
volaron cual doradas mariposas,
y me quedé hecho el rey del olvido.

USKERIEN ERREGE

Arrats-berak bere izpi ugariz
nire illuntasuna jantzi koroez,
ta nire buruko apainki deusez
diran lore zimel ok urre biziz.

Nire erregetzaren gaiñetik, irriz
nire naigabeai, garaille legez.
Eztiz lez gozartu nire samiñez;
samiña ederra, nire iritziz.

Arratsak alperrik, andrazko da-ta,
beraren argia eban erantzi,
gauzak irrika ta sena galdurik.

Ni nintzan barriro be. Mitxeleta
urrezko lez, egaz nire bekoki-
lorak. Ta ni aantzi-errege egiñik.

VIGILIA

Todas las noches vienes a mi sueño,
para decirme, dulce y quedamente,
que mi empeño en echarte de mi frente,
como a una maldición, es vano empeño.

Las torres que conquisto en el risueño
día para el olvido, en la doliente
noche las voy perdiendo, nuevamente...
¡Despierto esclavo si me dormí dueño!

Velo al sol, y a la luna, desvelado,
aguardo ansioso a que la sombra caiga
y asuste tu visión la amanecida.

El dormir, ¡ay de mí!, se me ha olvidado:
de día, porque el sueño no te traiga,
por la noche, esperando tu partida.

GAU-BELA

Gabero oi zatoz nire lotara,
gozo ta geldiro niri esaten
alperreko lana dodala añen
bat lez bekokitik zu urrun-bearra.

Aztutzeko egun alaiz eskura
dodazan torreak berriz galduten
noa gau samiñez. Jopu itxartuten
naz nagusi lez ba'nintzan lotara.

Eguzki-illargitan nagotzu erne,
artega ditxarot itzal noiz jausi,
zure ikustea izu dadin goizaldez.

Lo egitea aztu egin yat, ene!,
Egunez loak ez zaizan ekarri,
noiz alde egingo ote daustazun, gabez.

Gerardo Diego

(1896)

TENTACION

No. De noche no. De noche
no, porque me miran ellas.
Sería un mudo reproche
el rubor de las estrellas,

Tan inocentes, tan puras,
con sus ojos ignorantes,
latiendo como diamantes
allá arriba en las alturas.

—Entonces, mira. Mañana
bajo el sol viejo y ardiente.
La luz ciega, muerde, aplana.
El alma duerme... y consiente.

—De día? No. Las estrellas
en el cielo están también.
¿No lo sabías? Sí. Ellas,
aunque invisibles, nos ven.

ZILTZALDIA

Ez, gabean ez. Iñolaz ere,
eurak bai ditut begira.
Berba gabeko iroi litzake
goiko izarren bekara.

Ain errubako, ain garbi dira,
euren begi jakingekin,
ikatzarri lez intzirika ari
dira orko goietatik.

—Orduan, biar. Eguzki zar ta
berotsuaren azpian.
Itsutu, usiki, zapaltzen argik.
Gogoak, lo, laket ortan.

—Egunez? Ez, ez. Izarrak bere
zeruan egoten dira.
Ez al zenkian? Ikus-eziñak
ortxe daukaguz begira.

Federico García Lorca

(1898-1936)

MEDIA LUNA

La luna va por el agua.
¡Cómo está tranquilo el cielo!
Va segando lentamente
el temblor viejo del río
mientras que una rama joven
la toma por espejito.

ILLARGI ERDIA

Illargia uretan dabil.
Zerua dagon ziurra!
Astiro ebaten doa
errekaren dar-dar zarra.
Bitartean adar gazte
batek artan antzikurra.

Dámaso Alonso

(1898)

LA FUENTE

Agua de roca en valle,
hay una voz que canta.
Lebreles de ventisca
tal vez a oirla paran.

Tal vez la orilla trémula
de la canción rozando,
flamígeros la abrasan
o nos la niegan ávidos.

Mas tú, canción, no cesas.
Muertos y en sed, igual
has de fluir, oh fuente,
belleza perennal.

ITURRIA

Ibarreango aitz-ura,
abots bat dago kantari.
Bisuts-txakurren taldea
gelditu bide ba, adi.

Abesti-ertz dardartia
ikutuz edo, kizkaltzen
dabe garrez, edo, gosez,
guri dauskue ukatzen.

Baiña, Zeu, abesti, lotu
ez. Gu ilda edo egarriz,
aurrera, iturri, zoazke,
betirako edergarriz.

CAMINANDO DE NOCHE

Son árboles sedientos,
cabelleras en súplica,
que van la loma arriba,
tras la belleza última,

y el huracán repela
por la ladera abajo
hasta las quiebras hondas
—oh vida— del barranco.

Son árboles que buscan,
en soledad y viento,
lo que tú buscas. ¡Huye,
oh caminante negro!

GABAZ BIDE

Or, zugatz egarrituak,
ule-mototsak otoitzez,
mendian gora azkenengo
ederra atzeman bearrez.

Aize latzak maldan bera,
—oi bizitza— gogor joaz,
arruko troken sakona
garbitu eiten dau arras.

Bakartade ta aizetan,
zugatzak ekin dabiltza
zuk billa dozunan billa.
Alde, egin bidazti baltza!

Rafael Alberti

(1902)

Retorcedme sobre el mar,
al sol, como si mi cuerpo
fuera el jirón de una vela.

Exprimid toda mi sangre.
Tended a secar mi vida
sobre las jarcias del muelle.

Seco, arrojadme a las aguas
con una piedra en el cuello
para que nunca más flote.

Le di mi sangre a los mares.
¡Barcos, navegad por ella!
Debajo estoy yo, tranquilo.

Biurritu nagizue
itsas-ganean, euzkitan,
nire soiña aize-oial
baten dindirri bai'litzan.

Atara eizue nire
odol guztia. Zintzillik
jar nire bizi legorten,
nasako tantai gaiñetik.

Bota nagizue, igar,
uretan, lepoan arri
bat, emendik aurrera bein
be ibil ez nadin igeri.

Itsasoai emon neutsen
odola. Ontziak, jarrai
bertatik ibilteari!
Azpian neu natza, lasai.

Ojos tristes, por la banda
de babor... ¿Adónde irán?
—¿Adónde van,
capitán?
Ojos tristes, que verán
las costas que otros no vean...
—Sin rumbo van.
...Mis ojos tristes, sin rumbo...

Ontzian ezker-aldetik begi
itunak... Nora joango ete?
—Norantza ete, ontziburua?
Begi itunok ba-dakuskete
bestek eztako itsaso-ertza.
—Joan doatzuz, aurrez ibilte
jakiñik euki barik. Begi itun
nireok bere, nora ez dute.

ROA DE DUERO

Otra vez el río, amante,
y otra puente sobre el río.
Y otra puente con dos ojos
tan grandes como los míos.
Tan grandes como los míos,
mi amante.
¡Mis ojos, cuando te miro!

ROA DE DUERO

Ostera bere ibaia,
maitati, ta beste zubi
bat ibai-ganean. Beste
zubi batek begi andi
bi, nireak aiñakoak.
Nire begiok irudi
andiz, laztana. Begiok,
begiratutzean zeuri!

Miguel Hernández

(1910-1942)

El Silencio estaba
entre dos campanas.
...Y lo hizo hablar
la misa del alba.
¿Quién le respondió?
¡Sólo la sotana
del cura llevándose
lo nocturno a rastras
detrás del manteo!
¡Qué sola avanzaba
al templo final
la calle, la plaza,
la soledad, todo,
y la acompañaba
un bulto dorado
de sombra y de nada!
Vibraba el silencio,
y se reiteraba

BURDIN ORIZKO IXILLUNEA

Ixiltasuna kokatu
kanpai biren artean.
Goizaldeko meza ixillak
berba eragin eutsan.

Nork erantzun? Apaizaren
soiñekoak, gautarra
danari jantzi-atzetik
eragiola narra.

Gueneko elizarantz
bakar joian kalea,
enparantza, dana, baita
ere bakartadea!

Itzal-utsaren urrezko
mukulu, aren lagun.
Ixilla dar-dar; berritzen
zan bere mututasun.

su mudez. El pueblo
seguía en la cama
con sus apetitos
llenos de palabras:
¡qué bien al deseo
la respuesta daba!
Pero ¿a Dios? Silencio
entre dos campanas.

Ta erria bitartean
oe-barruan etzin
berbaz asebeteriko
bere naikeriekin.

Bere irritsai erantzun
zeatz emoten eutsan.
Ta Jaungoikoari? Ixilla
kanpai biren artean.

Tus ojos se me van
de mis ojos y vuelven
después de recorrer
un páramo de ausentes.

Tu boca se me marcha
de mi boca y regresa
con varios besos muertos
que aún baten, que aún quisieran.

Tus brazos se desploman
en mis brazos y ascienden
retrocediendo ante esa
desolación que sientes.

Otero de tu cuerpo,
aún mi calor lo vence.

Zure begiak nireotatik
doakidaz eta atzera
etorten dira, urrutikoen
lurrari egiñaz bira.

Zure aboa niretik doa
ta atzera dator, ildako
mosu batzukaz, oraindik egaz
ta irrikaz, dagoneko.

Zure besoak nireetan lur jo,
goraka doaz, nabari
dozun ondapen orren aurrean
dijoaztela igesi.

Oraindik, zure gorputz-mendixka,
nire beroak azpian dauka.

Dime desde allí abajo
la palabra **te quiero.**
¿Hablas bajo la tierra?

Hablo con el silencio.
¿Quieres bajo la tierra?

Bajo la tierra quiero
porque hacia donde corras
quiere correr mi cuerpo.

Ardo desde allí abajo
y alumbro tus recuerdos.

Esan eidazu or betik maite
zaut itza. Berbaz zagoz lurpean?
Ixiltasunaz nabil izketan.
Maite al dozu, lurpean ere?

Zu zeu zoazan lekurantza nai
du nire gorputz onek. Argatik
maite lurpean. Su naiz or betik,
zure gomuten argitzeko gai.

Escribí en el arenal
los tres nombres de la vida:
vida, muerte, amor.

Una ráfaga de mar,
tantas claras veces ida,
vino y los borró.

Bizitzako iru izenak izkiz
irar nebazan ondartzan:
bizi, erio, maitetasuna.

Ainbat argizko alditan
joandako itsas-ukaldia ager
ta ezabatu zituan.

Troncos de soledad,
barrancos de tristeza
donde rompo a llorar.

Bakartasun-enborrak,
ituntasun-arruak,
berton nire malkoak.

SER ONDA, OFICIO, NIÑA, ES DE TU PELO

Ser onda, oficio, niña, es de tu pelo,
nacida ya para el marero oficio;
ser graciosa y morena tu ejercicio
y tu virtud más ejemplar ser cielo.

¡Niña!, cuando tu pelo va de vuelo,
dando del viento claro un negro indicio,
enmienda de marfil y de artificio
ser de tu capilar borrasca anhelo.

No tienes más que hacer que ser hermosa,
ni tengo más festejo que mirarte,
alrededor girando de tu esfera.

Satélite de ti, no haga otra cosa,
si no es una labor de recordarte.
—¡Date presa de amor, mi carcelera!

OLATU IZAN, ZURE ULEEN ARAZO

Olatu izan, zure uleen arazo,
itsas-lanerako jaioko neska.
Zure ekintza, izan bitxi-baltziska.
Zeru izan, zure on gorenengo.

Neska, zure ulea egaz orduko,
aize argitsua baltz-erakuska,
zure adatsaren ekatxan aurka
gura oi dot, boli landu-antzeko.

Ederra izan, beste zeregiñik ez
zuk. Ta nik, zuri so, ez beste jairik,
zure ertz biribillan igurumari.

Zeure izar-lagun, ez begit ezerez,
zerori gogora ekarri baizik.
—Ene zaitzaille, etor Maiteak atzi.

Te me mueres de casta y de sencilla:
estoy convicto, amor, estoy confeso
de que, raptor intrépido de un beso,
yo te libé la flor de la mejilla.

Yo te libé la flor de la mejilla,
y desde aquella gloria, aquel suceso,
tu mejilla, de escrúpulo y de peso,
se te cae deshojada y amarilla.

El fantasma del beso delincuente
el pómulo te tiene perseguido,
cada vez más patente, negro y grande.

Y sin dormir estás, celosamente,
vigilando mi boca ¡con qué cuido!
para que no se vicie y se desmande.

Garbi-bakunarren ilten zayataz:
errudun naz, maite, ta auxe aitor:
mosu bat, ausarki, lapurtu nun or,
zure mosuaren guna edanaz.

Zure mosu orren guna iruntziaz
batera, ura bai gauza omenkor,
zure mosu ori, nimiño-gogor,
ba-doatzu ori ta zimelduaz.

Mosu gaizkiñaren iratxo ori
or doatzu, matrail orren jarraille,
agiri, andi ta baltzago eiten.

Lorik egin barik zagoz urduri,
bai setatsu, ene abo-zaitzaille,
ustel eta bidez oker ez daiten.

Por una senda van los hortelanos,
que es la sagrada hora del regreso,
con la sangre injuriada por el peso
de inivernos, primaveras y veranos.

Vienen de los esfuerzos sobrehumanos
y van a la canción, y van al beso,
y van dejando por el aire impreso
un olor de herramientas y de manos.

Por otra senda yo, por otra senda
que no conduce al beso aunque es la hora,
sino que merodea sin destino.

Bajo su frente trágica y tremenda,
un toro solo en la ribera llora
olvidando que es toro y masculino.

Lur-langilleak ba-doaz bidazti,
biurkera-ordu itzala da-ta,
ta euren odola zamaz beteta,
negu, udabarri ta udara-aldi.

Alez gaiñetiko alegiña utzi
ta abestira doaz, mosutara-ta.
Aidean itxiten dabe irarrita,
joan-ala, esku-tresnen usainki.

Bestelako bide ni nabillena.
Ordua dan arren, mosutara ez,
noraezean ta inguruz doa.

Bekoki itzal-zoritxardun zezena
ibarrean dago, bakar-negarrez,
azturik zezen ta ar dalakoa.

BILLABIDEA

Alberti, Rafael 145
Alonso, Dámaso 139
Castro, Rosalía de 79
Diego, Gerardo 131
García Lorca, Federico 135
Hartzenbusch, Eugenio 63
Hernández, Miguel 153
Iriarte, Tomás de 55
Jiménez, Juan Ramón 109
León, Fray Luis de 29
Machado, Antonio 91
Manrique Gómez 17
Marquina, Eduardo 103
Querol, Wenceslao 73
Quevedo, Francisco de 45
Rivas, Duque de 59
Romancero Popular Antiguo 6
Rueda, Salvador 87
Samaniego, Félix de 51
Santillana, Marqués de 11
Trueba, Antonio de 67
Vicente Gil 21
Zorrilla, José 83

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Luburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuiñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (Mendiburu'tar S.)
33. Gabon-Abestiak (Intxausti'tar A.-Gallastegi'tar K.)
34. Españi'ko Olerkariak euskeraz